

Iraultza xinaurritegian

Xinaurriak lerro-lerro dabilta, musika bizi baten erritmoan. Bat batean kolore guzietako ttirritta bat sartzen da gitarra bat eskuetan. Musika tanpez gelditzen da.

Ttirritta : Egun on, jaun-andereak ! Ikusten dut karraskan ari zaretela ! Ez zaituztet trabatu nahi. Kantuño bat emanen dizuet eta berehala alegeratuko zarete, bai ala fede !

Gitarra jotzen hasten da. Xinaurri zenbait lanaren uztera menturatzen dira eta ttirrittari hurbiltzen zataizkiote.

Xinaurri bat : Zein ongi kantatzen duzun ! Non ikasi duzu ?

Beste bat : Zer arropa ederrak dituzun ! Zer kolore xoragarriak !

Beste bat : Zer izen du eskuetan duzun tresna horrek ? Hunkitzen ahal dut ?

Beste bat : Zure arrazak zer izen du ? Zergatik ez zara zure taldearekin bizi ?

Beste bat : Gure xilotik kanpo badea gurea bezalako beste populurik ?

Buruzagi bat : Lanari lot zaitezte berehala ! Zer uste duzue ala, alfer egonez dugula gure leinua (zanpa-zanpa hurbiltzen zaie) biziaraziko ? Are ! Obedi ! (Ttirrittari) Eta zuk, hobe duzu lekuak husturik !

Taula gainean iluna da. Xinaurri talde bat gordeka biltzen da, lanpak eskuan.

Xinaurri bat : Entzun duzue buruzagia ? Beti lana, beti lana. Leporaino ase naiz !

Beste bat : Ez dugu horrela segitzen ahal. Zerbait egin behar dugu.

Beste bat : Goazen leinuko buruzagien ikustera eta jasan ezina zaiguna aipa diezaiegun.

Beste bat : Bai eta besteekin mintza gaitezen ikusteko guk bezalatsu pentsatzen dutenez.

Erretiratzen dira.

Ezker aldean xinaurri gazteak xutik dira ; eskuin aldean buruzagiak jarriak dira. Erdian buruzagi handia.

Buruzagi handia : Mintza zaitezte.

Gazte bat : Beti lanean aritzeaz aseak gara. Artetan pausa une batzuk nahi genituzke.

Beste bat : Jantzi alaiak soinean ezarri nahi genituzke.

Beste bat : Dantza egin nahi genuke.

Beste bat : Kantuz ari izan nahi genuke lagun artean.

Xinaurri zahar bat : Ez da posible ! Xinaurrien bizimoduan ez da horrelakorik haizu.

Denak batera : Ez, ez, ez !

Beste bat : Gure arbasoen legea segitu behar dugu : lana, lana, lana !

Denak batera : Bai, bai, bai !

Beste bat : Ttirritta bazter nahasle hori kanpora dezagun lehen ere egin zuten bezala.

Denak batera : Bai, bai, bai !

Zahar batek hitza eskatzen du ; buruzagiak keinu batez hitza ematen dio.

Zaharra : Gure mundua ez da lehenagokoa bezala. Gauza anitz aldatu dira. Guk ere aldatu behar dugu, nahitaez !

Besta bat : Zurekin bat egiten dut. Ez gara ontsa izanen gazte guziak okazaturik joaten bazaizkigu. Entzun ditzagun eta konponbide bat atzeman dezagun.

Buruzagi handia : Entzun zaituztet. Ados naiz erraten duzularik lana dela gure bizia. Hala ere zerbait egin dezagun gure gazteek bizi alegeragoa ukan dezaten. Proposatzen dizuet astean behin utz diezaiegun denbora elkarretartzeko, dantza, kantuz edo musikan ar daitezen. Guri ere on egingen digu artetan lanaren uzteak.

Denek elkarrekin bertsu bat ematen dute.

(Doinua : Ama begira zazu)

*Gazteek behar dute artetan jostatu,
zaharrek na(h)i dute hatsa pixkat hartu.*

*Gazteak karmañolan, zaharrak pausatzen
ttirrittari esker da bizia aldatzen.*

*Buruzagiak zinez du ongi jokatu
gazteak entzunez du geroari pentsatu.*

*Igandeetan dute ukanen bakantza
orduak elkarrekin (eg)inen dute dantza.*

*Lana egin behar da, hori da seguru
baina giro ona da denentzat helburu.*

*Bizia lehen hala eta orain hola
geroa nolakoa ? hain segur bestela.*

Jokalariak : Ttirritta bat eta xinaurri andana bat

Autorea : Kattalin Sallaberry

Argitaratzailea : Ikas

Argitaratze data : 2010/12/21

Maila : 3. ziklotik goiti